# OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinaria*

**Eguna/ *Día:*** 2024/03/11 / *11/03/2024*

**Ordua/ *Hora:*** *19:00etan / A las 19:00*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Aitor Alonso Esteban jn. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Edurne Huitzi Eratsun and. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Irati Alkorta Garcia and. Igantziko Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Gorka Obseo Inza jn. Igantziko Herri Taldea.

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

- D. Manuel Telletxea Iparraguirre jn. Igantziko Herria Taldea.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Gorka Obeso Inzak zinegotzi kargua hartzea.
3. Gorka Obeso Inzaren izendapena: informazio batzordeak eta kide anitzeko organoen ordezkaritza.
4. Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen behin betiko esleipena.
5. Iruzurraren Aurkako Planaren onespena.
6. Iruzurraren Aurkako Batzordearen izendapena.
7. Etika eta jokabide kodearen onespena.
8. Iruzurraren Aurkako adierazpena.
9. Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren aldaketa eta luzapena onestea.
10. Alkate Ebazpenak.
11. Galderak eta eskaerak.

**Erabakiak/ *Acuerdos:***

**1.- Azkeneko aktaren onespena.**

2024ko otsailaren 12ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

***1.- Aprobación del último acta.***

*SE APRUEBA POR UNANIMIDAD el acta del pleno ordinario de 12 de febrero de 2024.*

**2.- Gorka Obeso Inzak zinegotzi kargua hartzea.**

Igantziko Udalak 2024ko urtarrilaren 10ean egindako osoko bilkura arruntean Amaia Iguzquiaguirre Iturbidek zinegotzik karguari uko egin ziola ezagutza hartu zuen.

Era berean, tartean Aitor Begino Irigoienek eta Maria Zamora Celayetak zinegotzi karguei aurretiazko ukoa aurkeztu zuten eta 2024ko otsailaren 12an osoko bilkurak horren ezagutza hartu zuen.

Gorka Obeso Inza Igantziko Herri Taldeko zerrendan hurrengoa izanik, Hauteskunde Batzorde Zentralari bere zinegotzi kredentziala eskatu zen eta honako hau 2024ko otsailaren 19ko datarekin eman da.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedaturikoaren arabera eta hori betez, hautetsiak udaletxeko idazkariaren aitzinean izan ditzazken bateraezintasun arrazoi posibleei buruzko eta diru-sarrerak ematen dizkion edo eman diezazkion edozein jarduerari buruzko eta ondare-ondasunei buruzko aitorpena aurkeztu duela egiaztatu da.

Horrela bada, Konstituzioa beteko duela hitza eman du modu honetan eta idazkariak, legez agintzen duen galdera egin ondoren:

*"Denen aitzinetan, zin edo promesa egiten duzu zure karguaren betebeharrak zintzotasunez beteko duzula, Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa betez eta betearaziz?"*

- Gorka Obseo Inzak, promes egin du, legeak hala beharturik.

***2.- Toma de posesión del cargo de concejal de Gorka Obeso Inza.***

*En sesión ordinaria del pleno Ayuntamiento de Igantzi, celebrada el 10 de enero de 2024, se toma conocimiento de la renuncia al cargo de concejala presentada por Amaia Iguzquiaguirre Iturbide.*

*Asimismo, Aitor Begino Irigoien y Maria Zamora Celayeta presentaron su renuncia previa a los cargos de concejal y el 12 de febrero de 2024 el pleno tomó conocimiento de los mismos.*

*Así pues, se solicita a la Junta Electoral Central la credencial de concejal de Gorka Obeso Inza, siguiente en la lista de Igantziko Herri Taldea, que se emite con fecha 19 de febrero de 2024.*

*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y en cumplimiento del mismo, se acredita haber presentado ante la secretaria del ayuntamiento, declaración de bienes patrimoniales y sobre las posibles causas de incompatibilidad en que incurra el electo, así como sobre cualquier actividad que le proporcione o pueda proporcionar ingresos económicos.*

*En consecuencia, se compromete a dar cumplimiento a la Constitución en los siguientes términos y tras formular la aecretaria la pregunta que legalmente proceda:*

*"Frente a todos/as, ¿juras o prometes cumplir fielmente las obligaciones de tu cargo con lealtad al Rey y cumpliendo y haciendo cumplir la Constitución como norma fundamental del Estado?*

- *Gorka Obseo Inza, promete por imperativo legal.*

**3.- Gorka Obeso Inzaren izendapena: informazio batzordeak eta kide anitzeko organoen ordezkaritza.**

Alkateak informazio batzordea eratu eta osatu du honela:

- OGASUNA, GASTU KONTROLA ETA AURREKONTUAK: Gorka Obeso Inza eta Juankar Unanua Navarro.

Era berean, osoko bilkurak, AHO BATEZ udalaren eskumenean dagoen kide anitzeko organora joan beharreko udalaren ordezkaria honako izendatu du:

- ESKUALDEKO ELIKAGAIEN DINAMIZAZIO MAHAIA: Gorka Obeso Inza.

***3.- Designación de Gorka Obeso Inza: comisiones informativas y representación de los órganos colegiados.***

*El alcalde constituye y forma la comisión informativa en los siguientes términos:*

*- HACIENDA, CONTROL DE GASTO Y PRESUPUESTOS: Gorka Obeso Inza y Juankar Unanua Navarro.*

*Asimismo, el pleno, por UNANIMIDAD, designa como representante del ayuntamiento que debe acudir al órgano colegiado de competencia municipal:*

*- MESA DINAMIZADORA DE ALIMENTOS DE LA COMARCA: Gorka Obeso Inza.*

**4.- Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen behin betiko esleipena.**

Idazkariak azaldu du 2024ko otsailaren 11n, goizeko 9etan, Anddo erroizko erreka eta Apaola parajeen oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko sesta emateko epea bukatu zela, baina ez ziren eskaintza gehiago aurkeztu. Horrela bada, esleipen proposamen IPAR FORESTAL, S.L. (I.F.K.: B05390299) enpresari eman zitzaion, hura izan baitzen eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu zuena (57.820,90 €, BEZa kanpo).

Horrela bada, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 229. artikuluan eta plegu arautzailearen 14. klausulan xedaturikoaren arabera, esleipedunak kontratua egin aitzinetik aurkeztu beharreko dokumentazioa helarazi du eta aurkezturiko eskaintza ekonomikoaren 4 %-eko fidantza jarri du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendu salmenta enkantea IPAR FORESTAL, S.L. enpresari behin betiko esleitzea.

***4.- Adjudicación definitiva de la subasta de venta de aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.***

*La secretaria informa que el día 11 de febrero de 2024, a las 9 de la mañana, finalizó el plazo para realizar el sesteo de la subasta de la venta de aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo Erroizko erreka y Apaola, sin que se presentaran más ofertas. Así, la propuesta de adjudicación fue para la empresa IPAR FORESTAL, S.L. (C.I.F.:* B05390299*), que fue la que mejor oferta económica presentó (57.820,90 €, IVA excluido).*

*Así, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 229 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra, y en la cláusula 14 del pliego regulador, el adjudicatario ha remitido la documentación a presentar con anterioridad a la celebración del contrato y ha depositado fianza en un 4% de la oferta económica presentada.*

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

*1.- Adjudicar definitivamente a IPAR FORESTAL, S.L. la subasta para la venta de aprovechamiento en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.*

2.- Enpresari jakinaraztea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2.a) artikuluan xedaturikoaren arabera, adjudikazioaren eraginkortasuna hamar egun naturalez etenen dela, jakinarazpen honen egortze-egunetik kontatzen hasita.

*2.- Comunicar a la empresa que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 101.2.a) de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, la eficacia de la adjudicación quedará interrumpida durante diez días naturales contados desde la fecha de remisión de la presente notificación.*

3.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Baso Kudeaketako Atalari jakinaraztea dagokion mozketa baimena eman dezan.

*3.- Dar traslado del presente acuerdo a la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra para que otorgue la correspondiente licencia de corta.*

4.- Akordio hau IPAR FORESTAL, S.L. enpresari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*4.- Notificar el presente acuerdo a IPAR FORESTAL, S.L., para su conocimiento y efectos.*

**5.- Iruzurraren Aurkako Planaren onespena.**

***4.- Aprobación del Plan Antifraude.***

Kontuan hartuta HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duenak (EDL 2021/34548), ezartzen duela Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «Iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan behar duela, bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagokion jarduketa-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

*Considerando que la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (EDL 2021/34548), establece la obligación de toda entidad decisoria o ejecutora que participe en la ejecución de las medidas del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, de disponer de un «Plan de medidas antifraude» que le permita garantizar y declarar que, en su respectivo ámbito de actuación, los fondos correspondientes se han utilizado de conformidad con las normas aplicables, en particular, en lo que se refiere a la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses.*

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindu horrek 90 eguneko epea ezartzen du, agindu hau indarrean jartzen denetik edo, hala badagokio, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartu dela jakiten denetik, iruzurraren aurkako plana onartzeko.

*Considerando que la citada Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, establece un plazo de 90 días desde la entrada en vigor de la presente Orden o, en su caso, desde que se tenga conocimiento de la participación en la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, para la aprobación del plan antifraude.*

Alkatetzaren martxoaren 5eko 28/2024 Ebazpenaren bidez, iruzurraren aurkako plana onartzeko espedienteari hasiera ematea agindu zen.

*Resultando que mediante Resolución de Alcaldía 28/2024 de fecha martes, 5 de marzo, se ordenó la incoación del expediente para la aprobación del plan antifraude.*

Ikusirik idazkari-kontuhartzaileak 2024ko martxoaren 5ean egindako txostenak.

*Visto los informes emitidos por la secretaría-interventora de 5 de marzo de 2024.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Espedientean agertzen den Igantziko Udalaren Iruzurraren Aurkako Plana onartzea.

*1.- Aprobar el Plan Antifraude del Ayuntamiento de Igantzi que obra en el expediente.*

2.- Igantziko Udalaren salaketen kanpoko kanala gaitzea eta abian jartzeko agintzea. Kanal hori Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eta Arau-hauste arauemaileei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitako salaketa edo informazio kanal gisa eratzen da.

*2.- Habilitar y ordenar la puesta en funcionamiento el canal externo de denuncias de del Ayuntamiento de Igantzi, que se configura como el canal externo de denuncia o información previsto en la Directiva (UE) 2019/1937, de 23 de octubre, relativa a la protección de las personas que informen sobre infracciones del Derecho de la Unión y en la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.*

3.- Iruzurraren Aurkako Plana udaleko zerbitzuei jakinaraztea, beraien ezagutza eta ondorioetarako.

*3.- Dar traslado del Plan Antifraude a todos los servicios municipales, para su conocimiento y efectos.*

**6.- Iruzurraren Aurkako Batzordearen izendapena.**

***6.- Nombramiento del Comité Antifraude.***

Idazkariak azaldu du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera, Iruzurraren aurkako Batzorde bat eratu behar dela.

*La secretaria expone que, en virtud de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, procede la constitución de un Comité Antifraude.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Nagore Madariaga Iriarte (udaleko idazkari-kontuhartzailea), Jaione Sein Petrikorena (udaleko administrari ofiziala) eta Juan Carlos Unanua Navarro (udaleko alkatea) izendatzea Iruzurraren aurkako Batzordeko kide.

*1.- Designar a Nagore Madariaga Iriarte (secretaria-interventora del ayuntamiento), Jaione Sein Petrikorena (oficial administrativa del ayuntamiento y Juan Carlos Unanua Navarro (alcalde del ayuntamiento), como personas integrantes del Comité Antifraude.*

**7.- Etika eta jokabide kodearen onespena.**

***7.- Aprobación del código ético y de conducta***

Idazkariak adierazi du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedaturikoa ikusirik, Igantziko Udalaren etika eta jokabide kodea onartzea gomendatzen dela.

*La secretaria manifiesta que, a la vista de lo dispuesto en la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, se recomienda la aprobación del código ético y de conducta del Ayuntamiento de Igantzi.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Igantziko Udalaren etika eta jokabide kodea onartzea.

*1.- Aprobar el código ético y de conducta del Ayuntamiento de Igantzi.*

**8.- Iruzurraren aurkako adierazpena.**

***8.- Declaración institucional contra el fraude.***

Idazkariak azaldu du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedaturikoaren arabera, iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala onartzea gomendatzen dela, zeina Iruzurraren Aurkako Planean II. Eranskin bezala agertzen den.

*La secretaria expone que, de conformidad con lo dispuesto en la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, se recomienda la aprobación de la declaración institucional antifraude que se recoge en el Anexo II que figura en el Plan Antifraude.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala onartzea.

*1.- Aprobar la declaración institucional contra el fraude.*

**9.- Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren aldaketa eta luzapena onestea.**

***9.- Aprobación la modificación y prórroga del Convenio para la prestación del Servicio de Igualdad en Bortziriak***

Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmena 2021eko maiatzaren 28an sinatu zen eta horren iragarkia 2022ko martxoaren 14ko 52. zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

*El convenio para la prestación del Servicio de Igualdad en Bortziriak se firmó el 28 de mayo de 2021 y su anuncio fue publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 52 de 14 de marzo de 2022.*

Hitzarmenaren xedea da udal bakoitzak eta Nafarroko Gobernuko Institutuak ezartzen dituen berdintasun programak garatzeko Igantziko Udalak kontratatuko duen (dagoeneko kontratatua dago) berdintasun teknikariaren bidez Bortzirietako udaletan Berdintasun Zerbitzua ematea.

*El objeto del convenio es la prestación del Servicio de Igualdad en los Ayuntamientos de Bortziriak a través de la técnica de igualdad que contratará el Ayuntamiento de Igantzi (ya contratada) para el desarrollo de los programas de igualdad de cada ayuntamiento y el Instituto de Gobierno de Navarra establezcan.*

Zentzu horretan, aipaturiko hitzarmenaren zazpigarren klausulan xedaturikoaren arabera, hitzarmenaren iraupena 2024ko maiatzaren 28ra artekoa da eta hura luzatu edo aldatzeko aukera dago.

*En este sentido, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula séptima del citado convenio, la duración del mismo se extiende hasta el 28 de mayo de 2024, pudiendo ser prorrogado o modificado.*

Horrela bada, aipatzekoa da Bortzirietako udalek zerbitzu guztiak batuko dituen mankomunitate bakarra eratzeko nahiarekin, osoko bilkuretan Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzeko eta berregituratzeko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea, Euskara Mankomunitatea eta berdintasunaren arloko hitzarmena desegiteko prozedurak abiaraztea adostu zutela. Halaber, nahiz eta desegite hauek 2024ko azaroaren 30eko eraginarekin izan

*Así, cabe señalar a raíz de la voluntad de los Ayuntamientos de Bortziriak de constituir una única mancomunidad que unifique todos los servicios, en los plenos se acordó iniciar procedimientos de transformación y reestructuración de la Mancomunidad de Gestión de Residuos Urbanos y de disolución de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base, de la Mancomunidad de Euskera y del convenio en materia de igualdad. Asimismo, si bien se prevé que estas disoluciones*

litezkeela aurreikusten den, Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmena aldatzea eta iraupena luzatzea adostea gomendagarria dela ondorioztatu da.

*se puedan producir con efectos del 30 de noviembre de 2024, se concluye que es recomendable modificar el convenio para la prestación del Servicio de Igualdad en Bortziriak y acordar la ampliación de su duración.*

Alde batetik, finantzaketa eta gastuen portzentajeak erregulatzen dituen laugarren klausula aldatzea gomendatzen da (2025eko urtarrilaren 1etik aitzinerako eraginarekin). Izan ere, hitzarmena sinatu zenetik gaur egun arte Bortzirietako herrietako biztanle kopurua nabarmen aldatu da:

*Por un lado, se recomienda modificar la cláusula cuarta que regula los porcentajes de financiación y gastos (con efectos desde el 1 de enero de 2025). De hecho, desde la firma del convenio hasta la actualidad el número de habitantes de los pueblos de Bortziriak ha variado sustancialmente:*

| HERRIA | BIZTANLEAK* | PORTZENTAJEA (%) |
|---|---|---|
| ARANTZA | 610 | 7,14 |
| BERA | 3.792 | 44,41 |
| ETXALAR | 833 | 9,76 |
| IGANTZI | 572 | 6,70 |
| LESAKA | 2.731 | 31,99 |
| **GUZTIRA:** | **8.538** | **100** |

**2023ko urtarrilaren 1eko biztanleria datuak.*

| *PUEBLO* | *HABITANTES** | *PORCENTAJEA (%)* |
|---|---|---|
| *ARANTZA* | *610* | *7,14* |
| *BERA* | *3.792* | *44,41* |
| *ETXALAR* | *833* | *9,76* |
| *IGANTZI* | *572* | *6,70* |
| *LESAKA* | *2.731* | *31,99* |
| ***TOTAL:*** | ***8.538*** | ***100*** |

** Datos de habitantes a 1 de enero de 2023.*

Bertze aldetik, hitzarmenaren iraupena bertze lau urtez luzatzea gomendatzen da. Dena dela, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea eratzeko prozeduraren izapideen baitan, hitzarmeneko alderdi sintzaileek aho batez hala adostuz gero, hitzarmena azkendu ahal izanen da.

*Asimismo, se recomienda prorrogar la duración del convenio por cuatro años adicionales. No obstante, dentro de los trámites del procedimiento de constitución de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak, el convenio podrá extinguirse por acuerdo unánime de las partes firmantes del convenio.*

Hori guztia Nafarroako Toki Administrazioei buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 70. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 49. g) eta h) 2º eta 51.2.b) artikuluetan xedaturikoaren arabera.

*Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administraciones Locales de Navarra y en los artículos 49 g) y h) 2º y 51.2.b) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD ACUERDAN:*

1.- 2021eko maiatzaren 28an sinatutako Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren laugarren eta zazpigarren klausulak aldatzea onestea. Horrela bada, klausulen idazkia honela finkatzen da:

*1.- Aprobar la modificación de las cláusulas cuarta y séptima del Convenio para la prestación del Servicio de Igualdad en Bortziriak suscrito el 28 de mayo de 2021. Así, el escrito de cláusulas se fija de la siguiente manera:*

> *"LAUGARRENA.- Finantzaketa eta gastuak. Kostuen banaketari dagokionez, 2025eko urtarrilaren 1etik*

> *"CUARTA.- Financiación y gastos. En cuanto al reparto de costes, con efectos desde el 1 de enero de 2025, se imputará*

*aitzinerako eraginarekin, Arantzako Udalari %7´14an, Berako Udalari %44´41ean, Etxalarreko Udalari %9´76an, Igantziko Udalari %6,70ean eta Lesakako Udalari %31´99an egotziko zaie.*
*(…)*
*ZAZPIGARRENA.- Epea. Hitzarmen hau bertze lau urtez egonen da indarrean. Halaber, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea eratzeko prozeduraren izapideen baitan, alderdiek aho batez hala adostuz gero, hitzarmena azkendu ahal izanen da."*

*al Ayuntamiento de Arantza el 7 '14%, al Ayuntamiento de Bera el 44' 41%, al Ayuntamiento de Etxalarre el 9 '76%, al Ayuntamiento de Igantzi el 6,70% y al Ayuntamiento de Lesaka el 31' 99%.*
*(...)*
*SÉPTIMA.- Plazo. El presente convenio tendrá una vigencia de cuatro años. Asimismo, dentro de los trámites del procedimiento de constitución de la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak, el convenio podrá extinguirse por acuerdo unánime de las partes. "*

2.- Ahalmen nahikoa ematea Igantziko Udaleko alkateari Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren aldaketa sinatzeko.

*2.- Facultar al Alcalde del Ayuntamiento de Igantzi para la firma de la modificación del Convenio para la prestación del Servicio de Igualdad en Bortziriak.*

**10.- Alkatearen ebazpenak.**

2024ko 20tik 29ra Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

***10.- Resoluciones de Alcaldía.***

*Se informa sobre las Resoluciones del 20 al 29 de 2024 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**11.- Galderak eta eskaerak.**

Ez dira egin.

***11.- Ruegos y preguntas.***

*No se realizan.*

Bertzerik gabe, arratsaldeko 19:30 izanik, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

*Siendo las 19:30 de la tarde se pone fin a la reunión de la que se levanta la presente certificación de la secretaria, para hacer constar lo que se acuerda.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

Juankar Unanua Navarro

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**

Nagore Madariaga Iriarte